

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1988

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 19koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez ERNE-Ertzainen Nazional Elkartasuna. Sindicato Independiente de la Policía Vasca (ErNE) sindikatu-elkartearen aldaketa jasotzen duen dokumentazioa eta estatutuak gordailutzea iragartzen eta argitaratzen baita. (Gordailuko kodea: 76/0/00089).

Sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeko bulego publiko honetan irekitako espedientea ikusi da, ERNE-Ertzainen Nazional Elkartasuna. Sindicato Independiente de la Policía Vasca (ErNE) sindikatu-elkartearen aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutzeari buruzkoa. Hori dela eta, ebazpen hau eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2022ko ekainaren 20an aurkeztu da ERNE-Ertzainen Nazional Elkartasuna. Sindicato Independiente de la Policía Vasca (ErNE) sindikatu-elkartearen aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutu daitezeko dokumentazioa.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Dekretuan ezarritakoarekin.

Hirugarrena.– Elkartearen jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta haren eremu funtzionala estatutuetan ezarritakoa. Egitate horiei honako hauek aplikatuko zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 11.m) artikuluan (Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak aldatuta) ematen zaio organo honi sindikatu eta enpresa elkarteen estatutuak gordailutzeko eskumena.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikatu beharreko funtsezko arauak dira 11/1985 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Askatasun Sindikalari buruzkoa, eta aipatutako Errege Dekretua, sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzkoa.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zuzenbidearen arabera dela egiaztatu da, eta, ondorioz, onartu egiten da ERNE-Ertzainen Nazional Elkartasuna. Sindicato Independiente de la Policía Vasca (ErNE) sindikatu-elkartearen estatutuak aldatzeko aktari eta estatutuei buruzko dokumentazioa gordailutzea eta argitaratzea.

Aipatutako oinarriak eta oro har aplikatu beharreko gainerako xedapenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– ERNE-Ertzainen Nazional Elkartasuna. Sindicato Independiente de la Policía Vasca (ErNE) sindikatu-elkartearen estatutuak eta horiek aldatzeko dokumentazioa gordailutzeko agintzea.

2024ko apirilaren 25a, osteguna

Bigarrena.– Gordailu hori EHAAn argitaratzeko agintzen da, Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ematen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Laugarrena.– Interesdunek gordailututako dokumentua aztertu ahal izango dute eta haren kopia eskatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan aurkaratu ahal izango da, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean xedatutakoaren arabera (2011ko urriaren 11ko BOE).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 19a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.